

## **ERASMUS + KA 229 PROIEKTUA: NAZIOARTEKO IKASBIDEAK ITSASOAN ZEHAR; BIDAIA ITSASO GARBIEN BILA**

Aurten itsasoan zehar bidai bat egiten hasiko gara, abentura berri batean murgilduz. Beste herrialdeetako lau ikastetxe batzuekin (Irlanda, Polonia, Noruega eta Islandia) elkarrekin proiektu bat burutuko dugu. Helburua, Itsasoa, ibaien eta ingurugiroaren mantenuaren kontzientzia indartzea da. Proiektuak bi urte iraungo du eta ilusio handiarekin hasi gara. Ikastetxeak hauek dira: Irlandako Kinvara herriko *SN Bhrighde Naofa* ikastetxea, Noruegako Kolltveit hiriko *Kolltveit skuleeta* eskola, Poloniako Ustka hiriko *Szkola Podstawowa* eta Islandiako Grundarfjörour hiriko *Grunnskoli Grundarfjardar* eskola.

**Proiektuak lau helburu orokor izanen ditu; lehenik, ikastetxe bakoitzak egiten dituen praktika onak partekatzea, bigarrenik, kultura desberdinak ezagutzea (arte, musika gastronomia,...) hala nola herrialdeen arteko berdintasunak, desberdintasunak eta loturak ezagutzea, hirugarrenik web batean egindako lana biltzea eta azkenik beste ikastetxeetako ikasleekin ingelesez hitzegitea.**

Beraz, helburu horiek kontutan harturik, bide hau jorratzeko lantalde bat sortu dugu, SNIPI gure maskota izanik. Ikastetxe bakoitzetik hiru irakaslek parte hartzen dute. Gure kasuan, ingeleseko eta musikako irakasleak dira proiektuaren bultzatzaileak eta ikasleekin gaia jorratuko dutenak, tutore eta gurasoen laguntzarekin.

Proiektuaren helburu bakoitza oinarri hartuta, lan plangintza bat zehaztu dugu eta hori da hain zuzen ere ikastetxe bakoitzak bere testuinguruan murgilduta aurrera eramango duena hurrengo bi urteetan. Bidai honetan 3 ardatz nagusi jorratuko dira: Europa, historia-kultura eta ingurugiroa-ekologia. Ikasleak poliki poliki arraunean hasiko dira itsasoan zehar, bidean topatuko dituzten istorioak, kantak, dantzak, paisaiak, ibaiak, eta abar ezagutzuz. Noski, aurkituko dutenaren artean, zaindu beharreko zerbaitekin topatuko dira...

Egiten den lanaren dokumentazioa Etwinning plataformaren bitartez jasoko da. Eta Erasmus + proiektua izanik, egindako lanaren emaitza eta zabaltzea ezinbestekoa da arrakastatsua izan dadin. Beraz, bost ikastetxeen artean webgune bat sortuko dugu lan guztia biltzeko. Honekin batera nabarmendu nahi dugu, proiektuak ikastetxe guztiak bisitatzea eta bertakoa zuzenean ezagutzeko aukera ematen digula. Honek elkarrengandik ikasteko aukera ezinhobea da. Azaroan Irlandan egon ginen eta

**martxoan Iruñan elkartuko gara.** Irrikitan gaude!

Eta esan bezala gu iadanik lanean hasi gara! Hona hemen emandako lehenengo urratsak:

- **Aurkezpenak eta elkar ezagutzeko jarduerak:** 6. mailako ikasleak aurkezpen bideoak ingelesez grabatu dituzte eta plataformara igo dituzte. Otsailaren hasieran "Hamaiketako europearra" ospatuko dute Irlandako ikastetxeko ikasle eta irakasleekin Skype-n bitartez. Guk haiei hemengo produktuak bidali dizkiegu eta haiek guri haienak. Bakoitzak azalduko dio besteari zuzenean ze nolako produktuak diren, eta gero on egin!!

Honetaz gain, chromebookak erabiliz eta aplikazio ezberdinen bidez, ingurugiroaren zainketaren gaiarekin ari dira europear ikasleekin partekatzeke asmoz.

- **Itsasoaren presentzia gure kulturean:** Proiektuan parte hartzen dugun herrialde guztiok mankomunezko lotura historikoa eta kulturala daukagu. Bailearen arrantza, antzeko dantzak eta soinuak... Honi erreparatuz, lehen hezkuntzako 3 mailakoek Orioko azkeneko bailearen antzezpena egingo dute eta 1 eta 2 mailakoek hainbat abesti ikasiko dituzte.
- **Itsaso eta ibaien osasuna:** 4. eta 5. mailako ikasleek gelan itsasoaren argazkiak ikusi dituzte. Plastikoen pilaketa ikaragarria izanik, honen hausnarketa eta ikerketa egitea egokitu zaie. Eskolan eta etxean zenbat plastiko jasotzen den zenbatuko da, eta kantitate hau gutxitzea izanen da erronka, astetik atera neurtuz. Plastiko mota desberdinak ezagutuko dituzte, eta azkenik, jasotako plastikorekin arte-lan bat egingo dute, eskolako pasabide batean ezarri.
- **Arga ibaiaren garbiketa:** ibaia oso zikina dator, plastikoz eta zaborrez beteta eta Iruñako hainbat eragilek antolatutako garbiketa ekintzetan parte hartzeko gonbidapena luzatu zaio eskola komunitate osoari. Lehenengo bereziki, otsailaren hasieran burutuko dena.



Proiektuarekin hasi ginenetik konturatu gara gure ikastetxean ingurugiroa eta naturaren gaia lehen hezkuntzako maila guztietan urtero lantzen dela. Arga ibaia, gure hiriaren arnas aparatu garrantzitsua da eta hau osasuntsua mantentzea ezinbestekoa dela oso argi dugu. Ikasleek uraren kalitatea nola neurtzen den, ibaiaren ekosisteman bizi diren txoritxoei eraztunak nola jartzen zaizkien, uraren zikloa nola burutzen den, eta abar luze bat ikasi eta bizi izaten dute Iruñako Mankomunitatearen "Mancoeduca" programaren barruan.

Beraz, urteetan zehar egiten eta lantzen dena kontatzeko eta hausnarketa egiteko proiektua dugu Erasmus+ ekoa. Gure ikasleek lau ikastetxeetako ikasle zein irakasleei kontatu ahalko diete: erronka handia izanen da haiekin ingelesez egitea!

## **PROYECTO ERASMUS + KA 229: ESTUDIOS INTERNACIONALES SOBRE EL MAR; BÚSQUEDA DE VIAJES DE MAR LIMPIO**

Este año comenzaremos un viaje a través del mar, embarcándonos en una nueva aventura. Junto con cuatro escuelas de otros países (Irlanda, Polonia, Noruega e Islandia) llevaremos a cabo un proyecto llamado Set a Sail. Los objetivos son el mar, aumentar la conciencia de los ríos y la protección del medio ambiente. El proyecto durará dos años y hemos comenzado con gran entusiasmo. Las escuelas son: SN Bhrighde Naofa en Kinvara (Irlanda), Skule Kolltveit, Kolltveit (Noruega), Szkoła Podstawowa , Ustka (Polonia) y Grundskoli Grundarfjörour (Islandia).

**El proyecto tendrá cuatro objetivos generales; en primer lugar, compartir buenas prácticas en cada escuela, en segundo lugar, aprender sobre diferentes culturas (arte, música, gastronomía, etc.) la igualdad entre países, diferencias y conexiones , en tercer lugar recopilar el trabajo en un sitio web y finalmente hablar inglés con estudiantes de otras escuelas.**

Así que con estos objetivos en mente, hemos establecido un equipo para trabajar en este camino siendo SNIPI nuestra mascota. Participan tres maestros de cada escuela siendo en nuestro caso, los profesores de inglés y música los que llevan a cabo el proyecto. Los estudiantes trabajarán el tema con la ayuda de tutores y padres también.

En base a cada objetivo del proyecto, hemos definido un plan de trabajo que es lo que cada escuela llevará a cabo en su contexto dentro de los próximos dos años. Este viaje cubrirá 3 ejes principales: Europa, cultura histórica y ecología ambiental. Los estudiantes comenzarán lentamente a remar a lo largo del mar, aprendiendo sobre historias, canciones, bailes, paisajes, ríos y más.

La documentación del trabajo realizado se recopilará a través de la plataforma Etwinning. Al ser un proyecto Erasmus +, el resultado y la difusión del trabajo realizado son esenciales para el éxito. Así pues, crearemos un sitio web entre las cinco escuelas para reunir todo el trabajo. Con esto queremos enfatizar que el proyecto nos permite visitar todas las escuelas y conocerlas directamente. Esta es una gran oportunidad para aprender unos de otros. Nos

juntamos en Irlanda en noviembre y **en marzo nos encontraremos en Pamplona.** ¡Lo esperamos!

Y como hemos dicho, ¡ya hemos empezado a trabajar! Aquí están los primeros pasos dados:

- **La presencia del mar en nuestra cultura:** todos los países involucrados en el proyecto tienen un vínculo histórico y cultural común. Pesca de ballenas, bailes y sonidos similares ... A este respecto, el 3º curso de primaria jugará la última ballena de Orio y el 1º y 2º año aprenderán diferentes canciones y bailes.
- **Salud del mar y del río:** los estudiantes de 4º y 5º vieron fotos del mar en la sala. Debido a la tremenda acumulación de plásticos, se han adaptado para reflexionar e investigar sobre esto. Se contará cuánto plástico se recolecta en la escuela y en el hogar, y el desafío será reducir esta cantidad midiéndolo semanalmente. Descubrirán diferentes tipos de plásticos, y finalmente trabajarán con el plástico recibido, haciendo una obra de arte y colocándolo en una pasarela escolar.
- **Presentarse y conocerse:** los estudiantes de 6º grabaron videos de presentación en inglés y los subieron a la plataforma. A principios de febrero celebrarán la "merienda europea" con estudiantes y profesores de la escuela irlandesa a través de Skype. Les hemos enviado productos de aquí y ellos a nosotros. Cada uno le explicará al otro directamente qué productos son, y luego... ¡qué aproveche!

Además, mediante el uso de Chromebooks y diversas aplicaciones, están trabajando en el tema del cuidado del medio ambiente con el objetivo de compartirlo con los estudiantes europeos.

- **Limpieza del río Arga:** el río llega muy sucio, lleno de plástico y basura, y toda la comunidad escolar ha sido invitada a participar en las actividades de limpieza organizadas por varios interesados en Pamplona. El primero en concreto, saldrá a principios de febrero.



Desde que comenzamos con el proyecto, nos hemos dado cuenta en nuestra escuela de que el tema del medio ambiente y la naturaleza se trata en nuestra escuela cada año. El río Arga es un pulmón importante en nuestra ciudad, y está muy claro que es esencial mantenerlo saludable. Los estudiantes miden la calidad del agua, cómo anillar las pequeñas aves que viven en el ecosistema del río, conocer el ciclo del agua y todo esto a través del programa "Mancoeduca" de la Mancomunidad de Pamplona.

i Así que Erasmus + es un proyecto que nos va ayudar a tomar conciencia de lo importante que es cuidar nuestro entorno y aprender inglés para comunicarnos con el mundo !.